



INFORMAZIOAREN GIZARTERAKO ETA GARAPEN JASANGARRIRAKO INGENIARITZA

Eskakizunak

1. BERARIAZKO IRIZPIDEAK

Doktorego- programa batera **sartzeko baldintza orokorrak** betetzeaz gain, Informazioaren Gizarterako eta Garapen Jasangarrirako Ingeniaritzako doktoregoan **berariazko irizpideak ere kontuan hartuko dira.**

- **Doktorego-programa** baterasartzeko baldintza orokorrak betetzeaz gain, Informazioaren Gizarterako eta Garapen Jasangarrirako Ingeniaritzako doktoregoan berariazko irizpide hauek ere kontuan hartuko dira.
- **Graduko titulua** izatea honelako jakintza arlo batean: Informatikako Ingeniaritzan, Telekomunikazio Teknologien Ingeniaritzan, Ikus-entzunezko Sistemen Ingeniaritzan, Telematikako Ingeniaritzan, Industria Teknologien Ingeniaritzan, Industria Elektronikako eta Automatikako Ingeniaritzan edo Industri Antolaketako Ingeniaritzan.
- **Unibertsitate Master titulua** izatea honelako jakintza arlo batean: **Informatikako Ingeniaritzan, Telekomunikazioko Ingeniaritzan edo Industria Ingeniaritzan.**
- **Masterrak ikerketako teknika/metodoei** edo tutoretzapeko ikerketa proiektu bati lotutako **10 ECTS kreditu** izan beharko ditu gutxienez. Bestela, ikasleek 3.4. atalean ageri diren prestakuntzaren osagarriak egin beharko dituzte.
- Ondoren ageri diren eta **Deustuko Unibertsitatean** eskaintzen diren **Unibertsitate Masterreko programek** ematen dute sarbidea doktorego-programara: Informazioaren Segurtasuneko Unibertsitate Masterrak eta Software Soluzioen Garapen eta Integrazioko Unibertsitate Masterrak Kasu horretan ere, 3.4. atalean ageri diren prestakuntzaren osagarriak egin beharko dituzte.
- **Ingelesean C1** maila izatea.
- Ahoz eta idatziz adierazteko gaitasuna izatea.

- Diziplina ugariko eta talde-lanean aritzeko gaitasuna eta pertsona moduan heldua izatea.
- Doktorego-programako **ikerrildoetan interesa** izatea.
- Programan aurreikusitako jarduerak garatzeko prestasuna izatea eta, bereziki, **beste unibertsitate eta ikerketa zentro batzuetan** egotaldiak egiteko.
- CVaren balorazioan oinarritutako estatuko edo **nazioarte mailako beka bat izatea** (ez da baldintza baina aparteko eran hartuko da kontuan, hautagaiak baloratzeko orduan).

2. BALDINTZA OROKORRAK

2.1 Sartzeko baldintza orokorrak- Doktorego- programak

1. Oro har, **doktoregoko programa ofizial** batean sartzeko, graduako titulu ofiziala edo baliokidea eta Unibertsitate Masterreko titulu ofiziala izan behar dira.
2. Era berean, honako betekizunen bat betetzen dutenak ere sartu ahal izango dira:
 - **Espainako edo Europako** Unibertsitate Eremuko beste herrialde bateko unibertsitateko titulu ofizialen bat dutenak (Masterrerauko aukera ematen duena), urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera. Halaber, 300 ECTS kreditu gaindituta eduki beharko dituzte, gutxienez, unibertsitateko ikasketa ofizialetan, eta, horietako 60k, gutxienez, Master mailakoak izan beharko dute.
 - **Graduko Espainiako titulu ofiziala** dutenak; titulu horren iraupenak, gutxienez, Europar Batasuneko araudiaren arabera, **300 ECTS kreditukoa** izan beharko du. Tituludun horiek nahitaez egin beharko dituzte prestakuntza-osagarriak, graduako titulu horren ikasketa planak ikerketako prestakuntzagaritako krediturik izan ezean, Masterreko ikasketetako ikerketagaritako kredituen baliokide denik, prestakuntza balioari dagokionez.
 - **Unibertsitate tituludun direnak**, baldin eta, osasun prestakuntza espezializaturako plazetan sartzeko proben gaineko prestakuntzarako plaza eskuratuta, ebaluazio positiboa izan eta, behintzat, Osasun Zientzietako espezialitateren bateko titulu ofiziala eskuratzeko programa bateko prestakuntzako bi urte gainditu badituzte.
 - Atzerriko hezkuntza sistema bateko titulua dutenak (ez da beharrezkoa homologatuta egotea) eta titulu horrek **Espainiako Unibertsitate Master tituluen prestakuntzaren** pareko maila duela eta titulua luzatutako herrialdean doktoregoko ikasketak egiteko sarbidea ematen duela egiaztatuta dutenak. Onartua izateak ez du inolaz ere esan nahi ikasleak lehendik duen titulua homologatuta gelditzen denik, ezta beste aitortpenik ematen zaionik ere,

doktoregoko ikasketak egiteko onarpenetik kanpo. Doktore tituluak balio osoa izango du Espainian.

- **Doktoregoko ikasketetara** sartu ahal izango dira, 99/2011 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera eskuratutako Ikasketa Aurreratuen Diploma duten edo urtarrilaren 23ko 185/1985 Errege Dekretuan araututako Ikertzeko Gaitasuna eskuratu duten lizentziatu, arkitekto edo ingeniariak.
- **Espainiako beste doktore titulu bat dutenak**, aurreko unibertsitate antolamenduen arabera eskuratutakoa dutenak.